

GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



Guggenheim Bilbao Museoak 2014ko otsailaren 14an aurkeztuko du

Ernesto Neto: naraman gorputza

Babeslea:



Iberdrolarentzat oso pozgarria da, Guggenheim Bilbao Museoarekin batera, Ernesto Neto artistari buruz orain arte egindako erakusketa esanguratsuenetako bat prestatzen laguntzea.

Poztasuna bikoitza da, gainera, izan ere, Neto nazioarteko panorama artistikoaren artista nabarmenetako bat ez ezik, brasildarra ere bada eta herrialde hori funtsezkoa da gure Konpainiarentzat, Iberdrolak hamabost urte dramatzalako berrogei milioi pertsona energiaz hornitzen.

Halaber, laguntza honen bidez, Guggenheim Bilbao Museoarekiko dugun konpromiso sendoa berretsi nahi dugu berriz ere eta, gure enpresaren erantzukizun sozial korporatiboari lotutako ekintza sozialeko jardueren baitan, adierazpen artistiko berri bat sustatu nahi dugu.

Ernesto Neto berak adierazi bezala, gizakiok partekatzen duguna bereizten gaituena baino garrantzitsuagoa da. Horrexegatik, agian, erakusketa hau esperientzia partekatzeko espazio handia izango da eta egilearen espiritu irekiak, Museoan erakutsiko diren obren forma organikoen bidez islatutakoak, horretan lagunduko du.

Etengabeko mugimendua da bizitzaren ezaugarri nagusia, Netoren aburuz. Artistak naturan gertatzen diren konexio eta harremanen ideia hartu du oinarri, gauza artifizialen unibertsoa barne hartuta, hain zuzen ere, gizakia eta gizakiak sortzen duen oro naturaren parte direla iritzi baitio egileak.

Instalazioak multzo moduan ageri dira, deskubritzera eta arakatzera zabalik dagoen paisaia-gorputza balira bezala. Horrela, artistak bizitzan errotzeko eta naturarekin berriz ere lotura sakona sentiarazteko aukera eskaintzen dio ikusleari.

Bisitariak, azken batean, erakusketaz alderdi bikoitzetik gozatzeko aukera izango du, estetikaren zein fisikaren ikuspegitik. Horrenbestez, esperientzia paregabe hau lehen eskutik sentitzeko gonbitea luzatzen dut.

Ignacio S. Galán
Iberdrolako presidentea

Ernesto Neto: naraman gorputza

- Komisarioa: Petra Joos
 - Data: 2014ko otsailaren 14a–maiatzaren 18a
 - Babeslea: Iberdrola
- **Ernesto Neto artista brasildarraren —bere belaunaldiko artista esanguratsuenetako bat— obrari buruzko atzera begirako paregabea**
 - **Artistarekin batera eskuz esku prestatutako erakusketa honetan, 1990eko hamarkadatik hasi eta gaur eguneraino egindako obren hautaketa jasotzen da, bai eta Museoaren espazioetarako berriaz sortutako beste zenbait lan ere**
 - **Zentzumen anitzeko ibilbide interaktiboak Museoaren Atrioan du abiapuntua eta bigarren solairuko espazioetatik barrena egiten du bidea. Ibilbide osoan zehar, bisitaria obraren parte bilakatuko da**

Guggenheim Bilbao Museoak [*Ernesto Neto: naraman gorputza*](#) erakusketa aurkezten du. Ernesto Neto (Rio de Janeiro, 1964) artistaren obrari buruzko atzera begirako paregabea da. Neto Brasilgo artista nabarmenenetako bat da eta nazioartean oso ezagunak dira haren eskultura organikoak, sarritan tamaina erraldoia dutenak, *Erori egiten den gorputza [Le corps] emea (Leviatan Thot lanetik)[O corpo que cai (Le corps) fêmea (de Léviathan Thot)]*, 2006, kasu.

Iberdrolak babestutako erakusketak, 1990eko hamarkadatik gaur egunera arte sortutako berrogeita hamar artelanetik gora biltzen ditu; horietako batzuk berriaz taxutu behar izan dira berriz ere, Museoaren espazio arkitektoniko berezietara egokitze aldera. Beste batzuk, berriz, Bilboko erakusketarako espresuki sortu ditu artistak.

Hogeita hamar urte inguruko ibilbidean, artelanen inbentario izugarria pilatu du Netok, hasi marrakzi finetatik eta tamaina handiko instalazioetaraino. Zeharkatu, bizi, sentitu eta baita usaintzeko xedearekin sortzen ditu obra horiek, ikusleak eta obrek elkarri eragin diezaioten eta ikusleak bere gorputza eta zentzumenak sentitu ditzan. Halaber, gizakiaren gorputza bezalaxe, hauskorak eta delikatuak direla ohartuko da ikuslea.

Atrioan hasi eta Museoko bigarren solairuan barrena, erakusketa honek artistaren unibertso magikoan ibilbide paregabea proposatzen du. Zentzumenezko estimuluz eta ikusteko, ukitzeko eta usaintzeko iradokizunez betetako jokoan murgilduko du bisitaria, egunerokotik ihes egin eta pieza bakoitza zentzumen guztiekin sentitzeko gonbitea eginez. Ernesto Netok adierazi bezala, erakusketa poesiarako lekua da: *Etengabe ari gara informazioa jasotzen, baina erakusketa honetan pentsatzeari*

utz diezaiogun nahi dut. Artean babesa hartzea. Ez pentsatzea onuragarria dela deritzot; bizitza zuzenean arnastea da.

Artearen esperientzia zentzumen anitzeko jardun interaktibo bilakatzen du Netok eta gure sentipenekin harremanetan jartzeko gonbitea egiten digu. Artista brasildarrarekin eskuz esku sortutakoa izaki, Gehryren arkitekturaren berezko forma izurtu eta organikoak, inoiz ez bezala, estuki uztartzen zaizkio obrari, hots, “natura artelan gisa” kontzeptua etengabe berekin daraman lanari. *Naturak irakasten digu, horretan ez dago inolako zalantzarik. Dena dago naturan eta guztia laburbiltzen du. Ziur naiz egunen batean mundu naturalarekin erabateko harmonian biziko garela,* adierazi du Ernesto Netok.

Bederatzi gunetan bereizita dago erakusketa (“Zergatik zoaz berriz ere Erromara?”, “Horrelakoa da bizitza”, “Ametsen etxea”, “Ertz gozoa”, “Ez erreparatu nahas-mahasari”, “Mendiko senidea”, “Trukean-trukean”, “Gozokiak salgai” eta “Begiekin jan”) eta zenbait eremu ezegonkorretan barneratzen du bisitaria, eta, segidan, bere buruarekin lasaitu eta adiskidetzeko uneak oparitzen dizkio. Bidaia magikoa da tuneletan barrena nora ezean ibiltzeko, gorputza zenbait eremutan murgiltzeko, figura garaiak besarkatzeko eta ingurune ederrak usaindu eta sentitzeko.

Zergatik zoaz berriz Erromara? (Por que você está indo de novo para Roma?)

Eremu magiko honetan barrena doan ibilbideak Atrioan du abiapuntua eta, hain zuzen ere, Atrioko sabaitik, 55 metroko garaieratik, zintzilik ikus daiteke *Erori egiten den gorputza [Le corps] emea (Leviatan Thot lanetik) [O corpo que cai (Le corps) fêmea (de Léviathan Thot), 2006]*, instalazio ikusgarria. Thomas Hobbes-ek Leviatanen figuraz egindako lana du inspirazio iturri, hots, Joben Liburuan “piztia basatiainen erregea” bezala deskribatutako itsas munstro beldurgarria. Eskultura erraldoi honek lebitatzen duen gorputz handi bat du zintzilik eta tenkaturik, eta pisu handiz erortzen diren gorputz-adarrek, luze eta leunek, bisitaria inguratzen dute. Ernesto Netoren esanetan, piztia honek gu guztiok bizi garen gizartea irudikatzen du eta lurrari lotzen gaituen grabitatearen indarra ekartzen digu gogora.

Ernesto Netok 2006an Parisko Panteoirako egindako jatorrizko instalazioaren alderdi “emea” hautatu du erakusketa honetan erakusteko. Panteoia, Frantziako Iraultzaren ostean, ideologia humanistari egindako monumentu bilakatu zen.

Poliamidazko ehunez josia eta hareaz eta polipropilenoazko bolez betea dago obra, horrela, koskorak, zuloak eta masa eroriak dituen giza gorputzaren haragikoitasun bigun eta organikoaren itxura emanez. Gorputza bezain sensual, leun eta iragankorra den obra hau dualtasun eta konnotazio ugariak ezaugarritzen dute: astuntasuna-arintasuna; maskulinoa-femeninoa; mugimendua-gelditasuna; barrualdea-kanpoaldea.

Eskultura zoragarri honen azpian *Zeruari begira (Olhando o céu, 2013)* instalazioa dago ikusgai. Zenbait hamaka daude bertan, gurdi mugikorak balira bezala, eta bisitariak bertan etzan eta, oinen

bidez, Atrioan barrena mugitzeko aukera du; era horretara, Museoaren arkitektura zein buru gainean zintzilik dirauen *Erori egiten den gorputza [Le corps] emea (Leviatan Thot lanetik)* eskultura erraldoia behatuz. Hamaka mugikor horietan binokularrak zein espeziaz betetako konpartimentuak aurkituko ditu bisitariak eta behatzera, arnasa sakon hartzera, burua hustera eta zentzumen guztiekin gozatzera bultzatzen dute.

Halakoa da bizitza (É a vida)

Bizitza gorputz bat da: haren zati gara (Life is a body we are part of—A vida é un corpo do qual fazemos parte, 2012) obra Frank Gehryren eraikineko galeria lerromakur handietako batean nagusitzen da. Japonian 2012. urtean *Madness is part of life* erakusketan aurkeztu zuen lehen aldiz eskultura erraldoi hau. Bi atal ditu, maskulinoa bata eta femeninoa bestea, korridorea eta plataforma, eta ernalketaz dihardu, bizitzaren hasieraz, espermatozoideak obulua ernaltzen duen uneaz. Sabaitik zintzilik dagoen herensugearen forma du eta kakorraz-lanarekin eskuz eta kolore anitzeko teknika erabiliz landuta dago. Pieza honek, Ernesto Netoren gainerako obra guztiak bezalaxe, artistak bizitzaren aurrean duen ikuskera berezia sinbolizatzen du, hots, pertsonen eta naturaren arteko bereizketarik gabekoa: *gure buruek eta gure pentsamenduek, asmatzen eta eraikitzen dugun guztiak, mundu naturalean dute jatorria.*

Kolore anitzeko eta eskuz egindako kakorraz-lanaren dozenaka metroko pasabidean barrena egindako ibilbide magikoak pasabidera igotzeko eta bertatik ibiltzeko gonbitea luzatzen dio bisitariari: zolatik bereizten den heinean lurrak dardara nola egiten duen sentitzeko gonbidapena da; oinutsik, oinen azpian plastikozko bolen soinua entzutekoa; eta, azkenik, herensugearen goiko aldean etzan eta inguruneaz gozatzekoa, atsedean hartzeko edo bere pentsamenduekin bat egiteko. Bisitariak nolabaiteko bertigoa sentitzea da xedea, ziurtzat ematen dugun egonkortasuna zalantzan jar dezagun; edo, artistak berak adierazi bezala, egungo bizitzaren azkartasun, gehiegizko informazio eta konplexutasunaren aurrean atsedean hartzeko gonbitea onar dezagun. Gizarteak ezartzen dizkigun erronka berrien aurrean hartu beharreko jarreraz gogoeta egiteko aukera eskaintzen digu Netok, bai eta bere obraren bidez “gora iritsi eta etorkizunari begiratzeko” aukera ere.

Gune honen goiburu den “Halakoa da bizitza” esamoldea zailtasunen aurreko etsipen zantzu gisa interpreta daiteke. Hala ere, baieztapen sutsua dela iritzi dio artistak; zentzumen guztiekin bizitzeko gonbidapen poetikoa.

Ametsen etxea (Oca de sonhos)

Tupi-guarani hizkuntzatan, Rio de Janeiro eta inguruetan hitz egiten diren hizkuntz familia amerindiarrean, “oca” hitzak etxebizitza komunala esan nahi du, hau da, guztion artean eraikitakoa eta familia talde batek edo batzuk erabiltzen dutena. *Oca* hitzak, halaber, tribu osoa biltzeko eta elkarrekin bizitzeko lekua ere adierazten du zenbait kasutan, eta bertan erritualak ospatzen dira eta arbasoen ondarea partekatzen da: ezagutzez betetako etxea da. Horrela, *oca*-ren teilatuak ortzia, guztia estaltzen duen zeru naturala, ordezkatu eta osatzen du. *Ametsen etxea* izeneko gune hau

sortzearekin, hasiera-hasieratik bere lan artistikoaren baitan dirauen arkitektura kosmologikoaren kontzeptua egrian uztea da Ernesto Netoren asmoa.

Harrizko ezpainak, piperbeltzezko titiak, iltzezko amodioa, lainozko igela (Stone Lips, Pepper Tits, Clove Love, Fog Frog, 2008) izeneko eraikuntza mehatxatzaileak, historiaurreko narrasti baten gorputz erraldoia balitz bezala, ongi etorria egiten dio bisitariari areto klasikoaren hasieran. Poliamidazko ehunez osatutako azal izugarriak kupula baten moduan estaltzen du lurzorutik gora egiten duen egurrezko egitura-euskarria, narrasti baten arrautza-oskol erraldoia balitz bezala. Ernesto Neto berak, lan honetan eta beste zenbait lanetan, lurreko bizitzan nagusi izan diren bi espezieekiko —dinosaurioak eta gizakiak— lilura adierazten du, “animalia-arkitektura” izenez adieraziz. Aurretik egindako lanetan, arkitektura maskor modura erabili zuen Netok. Piezak “gorputzaren” alderdi biguna ziren bitartean, arkitektura gorputza estaltzen zuen maskorra edo mintza zen. Artistak zenbait hezur-egitura txertatu zituen pieza horietan, eta gela baten barruan beste gela bat sortu zuen. Elementu hori obra honetan ere ikus daiteke.

Dinosaurioek, gizakien moduan, botere handia izan zuten, baina, azkenean, ez zuten inguruan gertatzen ziren aldaketa azkarrei egokitzen asmatu. Egun, gizakiok antzeko egoerari aurre egin behar diogu.

Instalazioaren barrualdean piperbeltzez betetako bi “malko maskulinoek” eta iltzez betetako “malko femeninoak” bisitariaren usaimen zentzumena esnarazten dute, amets sentimendua areagotuz.

Ertz gozoa (Borda doce)

“Ertz gozoa” berariaz diseinatu zen Museoan erakusteko xedearekin, eta gure mugen eta errealitatearen mugen inguruan gogoeta egitera bideratzen gaitu; aldi berean, gure gorputzen eta mundu naturalaren arteko lotura du aipagai, artistarentzat ezinbestekoa dena.

Basoaren sakontasunean berde tonuak daude edonon eta mugak edo “ertzak” nahasi egiten dira, zuhaitzen adaburuen artean sartzen diren argi eta itzalen leherketa gertatzen denean. Instalazio honetan, artistak bere baso propioa “eraiki” du, obraren sabaia osatzen duen nylonezko “zerumuga” duena eta argia sartzea ahalbidetzen duena. Barrualdean dauden espezia lurrintsuen pisuak, zuhaitzen enborren moduan, zenbait lekutan lurzorurantz bultzatzen dute nylona.

Sabai zeharrargiaren pean, erakusketa abiatzen den egunetik hasita, kandela batzuk daude altzairuzko egitura batean, aretoaren erdigunea betez. Argizaria urtzen den heinean, naturalki, marrak bat sortzen du. Prozesu organiko hau etengabe gauzatuko da erakusketa amaitu bitartean, eta bisitariak prozesuaren zati txiki bat besterik ez du ikusiko Museora egindako bisitaldian.

Bisitariak instalazioaren inguruan kokatutako zenbait pufetan erlaxatzeko aukera izango du, eskulturen baso birtualak inguratuta, arnasa sakon hartu eta espezia lurrintsuak arnasten dituen bitartean. Honela azaltzen du artistak: “Natura gara. Denok gara natura. Ideia nagusia da, natura

gugandik bereizi egiten dugu beti, kanpoan kokatzen dugu... baina natura ez dago hirugarren pertsonan, natura lehen pertsonan dago. 'Barnean dago'. Erabat ziur nago mundu osoa ere natura dela”.

Areto honetan bertan, beste zenbait eskultura multzo daude ikusgai: *Kopulonia* (2013) eta *Ezpainoidea* (Lipzoid, 2013). *Kopulonia* asmatutako izenburua da eta kolonia eta kopula kontzeptuei aipamen bikoitza egiten die; tamaina eta kolore desberdineko nylonezko galtzerdiak biltzen ditu, berunezko bola multzoz beteta. *Ezpainoidea* obrak sistema organiko handiaren ideia arakutzen du, zeinetan elementuen artean harreman sinbiotikoak gertatzen diren.

Espazioan egindako konposizioa Brasil iparraldeko txaman herri baten, huni kuin herriaren, antzinako jardun batean oinarritzen da; jardun horretan, euren adimena zuzenean naturarekin harremanetan jartzen saiatzen dira. “Borde Doce” gunek Ernesto Neto kun tribuarekin izandako esperientzia bizia islatzen du. Artelanak eta herri honen txaman erritualak nahasten dira espazio honetan eta, halaber, basoaren espiritua oso nabarmena da, erakusketa osoan bezalaxe.

Mendiko senidea (Irmão da montanha)

Erakusketak Museoaren azken areto klasikoan du segida eta, bertan, *Azal den gorputzaren denbora geldoa* (*O tempo lento do corpo que é pele*, 2004) eskultura dago ikusgai. Rio de Janeiro inguruko mendietan jatorria duen “nozinho” (korapilo txikiak) izeneko alfonbra ehunezko teknikarekin egindako eskultura da. Pieza hau mendi bat, animalia bat edo bisitariak irudika dezakeen beste edozer gauza estaltzen duen mantu gorri trinko erraldoia da eta argi eta garbi adierazten du artistaren obretan agerian dagoen gorputzaren eta paisaiaren arteko trantsizioaren ideia. COOPAROCA emakumeen kooperatibak korapilo txiki bidez egindako alfonbra lodi hau trinkoa eta astuna da, artistaren gainerako obra garden eta hauskorrekin alderatuta, eta baliteke ezkutuko zerbaiten pisua adieraztea. Era berean, azala existentziaren txoko gisa aipatzen du, gure barruko bibrazioak kanpoko bibrazioekin konektatzen diren txokoa.

“Irla gorputza” eta “animalia mendia” izenekin izendatzen du Neto instalazio hau. Instalazioaren inguruan, teknika bera erabiliz egindako beste pieza bat ikus daiteke, suge baten modura, sigi-saga doana.

Ez erreparatu nahas-mahasari (Não repara, não)

Museoko petalo formako espazioetako batean, artistak esperientzia oso intimoan parte hartzeko gonbitea luzatzen dio bisitariari. Areto handi hau artistak “gertaeren hiperhorizontea” izenez deitutakoan bilakatu du, lurzorua eta sabaia estaltzen dituzten poliamidazko bi geruza handi erabiliz eta geruza horiek material bereko zutabeen bidez lotuz. Espazio honetan sartu ondoren, bere gorputzaren pisuarekin egitura gardena eraldatu egiten dela ohartuko da bisitaria eta, aldi berean, instalazioaren lurzorua eta sabaia osatzen duen gasak kanpoko paisaia baten ikuspegia desitxuratuko du.

UmetokiaKaperaNabea II (Nave Utero Capela II, 2013) izeneko obra gailentzen da aretoan. 2001. urtean, Ernesto Neto zortzi hilabetez haurdun zegoen Lili emaztegaiarekin ezkondu zen, Museu de Arte Moderna do Rio de Janeiroan ikusgai zegoen instalazio baten barruan. Bilbon obra horren bertsio txikiagoa aurkeztu du, eta, obrarekin batera, ezkontzaren errituala kontatzen duen bideoa erakutsiko da. Aretoaren atzealdean koltxoi kolektibo bat dago, bisitariari bertan etzateko gonbitea eginez. Bisitariaren gorputzak aztarna utziko du eta aztarna hori aldatu egingo da geroago iritsiko diren beste gorputz batzuk utzitako aztarnen ondorioz. Artista uztarketa sententzio horren bila dihardu, gure elkartzeko intimoek nola eraldatzen gaituzten ikusi nahi du, agian gu geu baino zer edo zer handiagoan bilakatuko gaituztelarik.

Espazio honetako beste zenbait obrek, halaber, ikuslearen esperimentazioa eta interakzioa eskatzen dute. 2001ean poliestirenozko eta poliamidazko aparrez egindako *Gizakioideak (Humanoids)* multzoa bisitariaren anatomian, jantzi amorfoa balitz bezala, ezin hobeto egokitzen diren nolabaiteko figurek osatzen dute, eta jantzi hori erabiltzen duenari azal, forma eta ehundurak ukimenaren bidez deskubritzeko aukera ematen dio.

1990eko hamarkada erdialdean, Netok hasierako lanen lengoia geometrikoa albo batera utzi eta aurretiaz jositako poliamidazko piezak material desberdinekin betetzeari ekin zion, besteak beste, poliestirenozko aparrezko bolekin, irinarekin eta espezieekin. Era horretara, gorputz edo organismo bizidunak gogora ekartzen dituzten formak eskuratzea zen asmoa.

Areto honetan hiru proiektzio erakusten dira: lehenengoak Netok lagunei hondartzan ateratako argazkiak biltzen ditu, bigarrenak goizeko ordu txikitik apartamentuan hartutako irudiak eta hirugarrenak ezkontzarenak. Irudi horiek Rio de Janeiroko Laura Alvim galerian erakutsi ziren lehen aldiz 2010ean.

Trukean-trukean (Troca Troca)

Indarrean den atzeraldi globalaren erantzun gisa mundu osoan zehar sortu diren aldaketa eta trukeerako sareak oinarri hartuta, erakusketa honetarako berriaz sortutako obra berri bat aurkezten du artistak: *Trukean-trukean (Troca Troca, 2013)*. Beirazko aleak dituzten paperezko zenbait poltsa obraren oinarri diren eguneroko bizitzako objektuen inguruan jarrita daude. Bisitariak, erakusketaren lehen egunetik, objektu horiek berak ekarritako beste objektu batzuekin ordezkatzeko aukera izango du.

Artistak, horrela, elkartasuna, elkarbizitza, produktuen birziklatzea edo berrerabilpena kontzeptuak azaleratzea du helburu eta, hurkoaren beharren aurrean, gure benetako beharrak zeintzuk diren aztertzerako gonbidatzen gaitu. Bestalde, partaide bakoitza agente artistiko bilakatzen du Netok. Obraren muina etengabe ari da aldatzen: obraren zati bat munduan zehar barreiatuta dago eta, aldi berean, bisitarien aukera pertsonalak obraren zati bilakatuko dira.

Gozokiak salgai (Baleiro Bala)

Ernesto Netoren unibertsoan barrena egindako bidaiak beste galeria handi batean jarraitzen du eta bisitaria artistaren jaioterriko herri-kultura bizian murgiltzera bultzatzen du. Kolore guztietako hari-egitura erraldoi baten ehunka metrok, kakorraz-lanaren teknikaren bidez jositakoek, sabaitik zintzilik dauden zenbait zutabe osatzen dituzte eta zutabeak, halaber, koloretako plastikozko bolez beteta daude. Eskultura haragikoi horiek Brasilgo inauterietako danbor tipikoak, gozoki eta espeziaz betetako poltsa mordoa, koko berde handiak, freskagarri eta garagardo latak eta beste hainbat objektu hartzen dituzte. Horien bidez, artistak Brasilgo auzoetako saltzaile ibiltarien bizitza zalapartatsuan murgildu nahi du bisitaria. Instalazioaren erdian, piano bat dago.

Baleiro Bala sanba eskola bateko kantu ezaguna da eta gozokiak eta litxarrerriak saltzen dituen saltzaile ibiltari baten —*camelô* bat— istorioa kontatzen du. Rio de Janeiroko trenbidetik gertu egiten zuen lan eta saltzaile horren istorioa gizakiaren bizirik irauteko gaitasunaren adibide gisa hartu du artistak. Bertako artisautzaren ezaugarriak eta Brasilgo herri-kulturaren erritual txikiak aldarrikatzen dira instalazio honen bidez, horiek baitira artistaren aburuz bizitza kolektiboaren esperientzia aberastu eta dibertsifikatzen dutenak, egungo merkatu globaleko ekonomiaren komertzializazioaren aurrean.

Begiekin jan (Comendo com os olhos)

Erakusketak beste areto batean jarraitzen du eta altzairu herdoilkorreko forma organikoak dituen eskultura bat eta landareak dituzten zeramikazko loreontziak ikus daitezke. Netok eraikitzeke erabili ohi dituen metodoetako bat erabiltzen du obra honetan. Obraren kolorea denborarekin aldatu egiten da, marroi gorrixka kolore sakona hartuz.

Galeria honetan, halaber, berriz ere giza gorputzari erreferentzia egiten dion kolorezko argazki bat ikus daiteke. Dallasko Nasher Sculpture Center-era egindako bisitaldian, bildumako zenbait obren inguruko interesa adierazi zuen Netok eta obra horien lehen planoko argazkiak egin zituen.

Museoaren arkitekturarekin lortzen duen uztarketa bereziaren ondorioz, Brasilgo sortzaile nabarmenetako baten inguruan egin den bilduma ikusgarriena da *Ernesto Neto: naraman gorputza* erakusketa. Artistak zentzumenen (norberaren gorputza) eta politikaren ikuspegitik heltzen dio gorputzaren azterketari. Platonek gorputzaren existentzia baztertzen zuen, adimena maila gorengoan zegoela iritziz. Netorentzat, ordea, gorputzak “eramaten gaitu” eta adimena gorputzak baliatzen duen atal bat da, beste zenbait atal baliatzen dituen moduan. Bada gorputz kultural bat ere, era berean “eramaten gaituen” gorputz politikoa. Erakusketaren izenburua barne eta kanpoko harremanen artean dagoen interfazean kokatzen da. Bitartekaria da.

Erakusketaren katalogoa

Erakusketaren katalogoak Petra Joos komisarioaren saiakera ez ezik, Raphaela Platow The Alice & Harris Westoneko Contemporary Arts Centerreko eta Lois & Richard Rosenthal Center for Contemporary Art de Cincinnati, Ohioko zuzendariaren saiakera ere jasotzen du. Bestalde, artistari egindako elkarrizketa irakurtzeko aukera ematen du eta erakusketaren sei ataletan barrena ibilbidea egiten du irudien bidez eta Franck Leibovicik, Tania Riverak, Luiz Alberto Oliveirak, Pedro Luzek, Hannah Monyerrek eta Rainer Hehle idatzitako testu laburren bidez. Testu horietan, sorkuntza, iragankortasuna, harreman sozialak, kulturen uztarketa edo arkitekturaren espazioa dituzte mintzagai.

Azaleko irudia:

Erri egiten den gorputza [Le corps] emea (Leviatan Thot lanetik)[O corpo que cai (Le corps) fêmea (de Léviathan Thot)], 2006

Poliamidazko tula, tutua eta galtzerdia; estireno aparrezko bolatxoak eta harea

Artistaren bilduma

Ikuspegia: Guggenheim Bilbao Museoa, 2014

Argazkia: Erika Ede

©Ernesto Neto, Guggenheim Bilbao, 2014

Informazio gehiagorako:

Guggenheim Bilbao Museoa

Komunikazio eta Marketin Saila

Tel: 944359008

media@guggenheim-bilbao.es

www.guggenheim-bilbao.es

Guggenheim Bilbao Museoren gaineko informazio guztia hemen eskuragarri: www.guggenheim-bilbao.es (prentsa eremua).

Prentsa irudiak:
Ernesto Neto: naraman gorputza
Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsarako irudiak eskuratzeko sareko zerbitzua

Museoaren webguneko prentsa eremuan (prentsa.guggenheim-bilbao.es/eu) izena eman dezakezu erakusketen eta eraikinaren inguruko bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzu, eman hemen izena. Erabiltzailea baldin bazara, sartu zuzenean hemen erabiltzaile-izena eta pasahitza.

Argibide gehiagorako, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoa-ren Prentsa Arloarekin: telefonoz, +34 944 35 90
08, edo posta elektronikoz bidez, media@guggenheim-bilbao.es

Ernesto Neto

Erori egiten den gorputza [Le corps] emea (Leviatan Thot lanetik)[O corpo que cai (Le corps) fêmea (de Léviathan Thot)], 2006

Poliamidazko tula, tutua eta galtzerdia; estireno aparrezko bolatxoak eta harea

Artistaren bilduma

Ikuspegia: Guggenheim Bilbao Museoa, 2014

Argazkia: Erika Ede

©Ernesto Neto, Guggenheim Bilbao, 2014



Ernesto Neto

Saltzaile ibiltaria Sorta Gozozokiak (Camelô Cacho Balabala), 2010

Gozokiak, plastikozko poltsak, katea eta kakoak

116 x 32 x 32 cm

4 aleko edizioa

Artistaren bilduma

Ikuspegia: Museu de Arte Moderna, São Paulo, 2010

Argazkia: Everton Ballardin

©Ernesto Neto, Guggenheim Bilbao, 2014



Ernesto Neto

Danborra (Tambor), 2010

Kakorratz-lana, harriak, pianoa, afrobrasildar danborrak eta kaxa (perkusioa)

380 x 1.000 x 1.000 cm

Artistaren bilduma

Ikuspegia: Museu de Arte Moderna, São Paulo, 2010

Argazkia: Everton Ballardin

©Ernesto Neto, Guggenheim Bilbao, 2014



Ernesto Neto

Harrizko ezpainak, piperbeltzeko titiak, iltzeko amodioa, lainozko igela (Stone Lips, Pepper Tits, Clove Love, Fog Frog), 2008

Poliamidazko tula, galtzerdia, oihala eta tutua; zura; piperbeltza; iltzea; eta harriak

4,90 m x 6,64 m x 9,60 m/12,50 m x 25,72 m (sabaia)

Hauen eskaintza: artista, New Yorkeko Tanya Bonakdar

Gallery eta São Pauloko Galeria Fortes Vilaça

Ikuspegia: Guggenheim Bilbao Museoa, 2014

Argazkia: Erika Ede

©Ernesto Neto, Guggenheim Bilbao, 2014



Ernesto Neto

Baso zerua (Céu Floresta), 2013

Poliamidazko tula, tutua eta galtzerdia; espeziak; eta hartxintxarra

12 pie425 x 1721 x 1710 cm (inguru)

Artistaren bilduma

Ikuspegia: Guggenheim Bilbao Museoa, 2014

Argazkia: Erika Ede

©Ernesto Neto, Guggenheim Bilbao, 2014



Ernesto Neto

Azal den gorputzaren denbora geldoa (O tempo lento do corpo que é pele), 2004

Aparrezko eta poliamidazko alfombra

Thyssen-Bornemisza Art Contemporary, Viena

Ikuspegia: Galerie Max Hetzler, Berlín, 2004

Argazkia: Jörg von Bruchhausen

©Ernesto Neto, Guggenheim Bilbao, 2014



Ernesto Neto

Kopulonia (Copulônia), 2013 [1989]

Poliamidazko galtzerdia eta berunezko esferak

5 x 150 x 250 cm

Erakusketarako kopia

Artistaren bilduma

Ikuspegia: Guggenheim Bilbao Museoa, 2014

Argazkia: Erika Ede

©Ernesto Neto, Guggenheim Bilbao, 2014



Ernesto Neto

Bizitza gorputz bat da: haren zati gara (Life Is A Body We Are Part of-A vida é um corpo do qual fazemos parte), 2012

Kakorratz-lana eta polipropilenoazko bolak

780 x 786 x 1.486 cm

Artistaren bilduma

Ikuspegia: Espace Louis Vuitton Tokyo, Tokio

Argazkia: ©Louis Vuitton/ Jérémie Souteyrat; Espace Louis

Vuitton Tokyo-ren babesaz egindako lana

©Ernesto Neto, Guggenheim Bilbao, 2014



Ernesto Neto

Arrautza Gorputza (OvoCorpo), 2013

Poliamidazko galtzerdia eta oihala; estireno aparrezko

bolatxoak; eta polipropilenoazko bolatxoak

720 x 540 x 45 cm

Erakusketarako kopia

Artistaren bilduma

Ikuspegia: Guggenheim Bilbao Museoa, 2014

Argazkia: Erika Ede

©Ernesto Neto, Guggenheim Bilbao, 2014



Ernesto Neto

UmetokiKaperaNabea II (Nave Útero Capela II), 2013

Poliamidazko tula, tutua eta galtzerdia; aluminioa; estireno

aparrezko bolatxoak; gomazko bolak; polipropilenoazko bolak

eta harea

600 x 1568 x 1275 cm

Artistaren bilduma

Ikuspegia: Guggenheim Bilbao Museoa, 2014

Argazkia: Erika Ede

©Ernesto Neto, Guggenheim Bilbao, 2014



Ernesto Neto

Gizakioideak (Humanoids). 2001

Poliamidazko tutua eta galtzerdia; belusa; espeziak; eta

estireno aparrezko bolatxoak

Gizona: 177,8 x 127 x 96,52 cm / Emakumea: 172,7 x 106 x 71,1

cm / Haurra: 160 x 96,5 x 76 cm / 7 urte: 140 x 76,2 x 76,2 cm

/ 5 urte: 116,8 x 66 x 10 cm / 3 urte: 114,3 x 45,7 x 45,7 cm

Erakusketarako kopia

Artistaren bilduma

Ikuspegia: Guggenheim Bilbao Museoa, 2014

Argazkia: Erika Ede

©Ernesto Neto, Guggenheim Bilbao, 2014



Ernesto Neto: naraman gorputza

Jarduera osagarrien egutegia:

- **Helduentzako tailerrak / Sormen saioak**

Laguntasuna ehuntzen I

Kakorrazt-lanak egiteko tailerra, Netoren lan-taldearekin (Lagunentzat soilik)

Otsailak 6 (osteguna)

Lekua eta ordua: 208. Aretoa, 18:00-19:30

Laguntasuna ehuntzen II

Kakorrazt-lanak egiteko tailerra

- Otsailak 18 (asteartea) eta 20 (osteguna). Hasiberrientzako bi saioko tailerra

- Martxoak 4 (asteartea). Oinarrizko ezagutzak dituztenentzako saio bakarra.

- Martxoak 6 (osteguna). Oinarrizko ezagutzak dituztenentzako saio bakarra.

Lekua eta ordua: Museoko aretoak eta Zero Espazioa, 18:00-19:45

Usainen tailerra

Ernesto Netok haren artelan batzuetan erabilitako lore eta espezien aromak ezagutzeko aukera duzu, *Ruiz de Ocenda* lora-denda eta perfumeriako zuzendari Viki Fernándezen eta *El tocador de Dorothy* blogaren sortzaile Maddalen Marzol "sudur" bikainaren eskutik. Zure perfume pertsonalizatua sortuko duzu eta etxera eraman parfumearen hastapenen tailer honetan.

- Apirilak 8, asteartea. *Saio bakarra.

- Apirilak 10, osteguna. *Saio bakarra.

Lekua eta ordua: Museoko aretoak eta hezkuntza gune berriak, 18:00-20:00.

Sarrerak: 20 € Lagunak eta 25 € Publiko orokorra. Ezinbestekoa da aldez aurretik webgunean erreserba egitea.*18 urtetik gorakoentzat. Gutxienez 10 pertsona talde bakoitzeko; gehienez 15.

- ***Hitzaldia: Ernesto Neto***

Otsailak 11 (asteartea)

Lekua: Museoko Entzungela

Ordua: 18:30

- ***Hezitzaileak aretoetan***

Asteartetik igandera, erakusketa zabalik dagoen bitartean.

Lekua: Atrioa, 203. eta 208. aretoak

Ordutegia: goizez

- ***Arte Ardura Arloaren ikuspegia Petra Joos-en eskutik (erakusketaren komisarioa)***

Otsailak 26 (asteartea)

Lekua: Informazio-mahaia

Ordua: 18:30